

EGIA ZEN

- Uxue, egunon! Uxue, jaiki zaitez! berandu da, -Xabierrek dio- kopetan musu bat emanaz.

Uxue ohean esertzen da. Oraindik ametsetan dagoela pensatzen ari da, bere aita ikusten duenean. Begiak igurtzi eta gero, esnatuago.....

- Non dago ama? -galdetzen du.

- Kalera atera da. Badakizu, aste batzuetan zehar goizero nik esnatuko zaitut musu bat emanaz. Zer iruditzen zaizu?

- Zer ondo! -esaten du- oheraren gainean saltokan.

Bapatean, gelditu eta galdetzen du.....

- Oporretara goaz?

- Ez, ez, gertatzen da, lantegian esan digutela denbora batean ez garela joango lanera eta oporrei buruz, auskalo. Beno, konpon zaitez beste egunetan bezala, gosaria prestatzen dudan bitartean.

Esnea edanda eta galleta batzuk jaten dituen bitartean, Uxuek pensatzen du, bere onerako orain aitarekin denbora gehiago pasatuko duela.

- Aita! mendira eramango nauzu gurutze handi horretaraino? Inoiz ez naiz egon han.

- Konforme. Bihar bertan joango gara.

Maialen etxera iristen denean, Uxuek, oso pozik, esaten dio.....

- Ama, bihar aita eta biok mendiko gurutzera joango gara.

Hurrengo goizean Xabierrek gosaria prestatzen zuen bitartean, Uxue prest zegoen, urduri.

Atzean geratu da Irubide eta oinez zebiltzan bitartean, Uxuek bere buruari galdetzen dio ea nola izango den gurutze hori .

- Uxue, komenigarria da zerbait jatea, -esan zion Xabierrek-. Hemendik gutxira Basaluze Dorrera ailegatuko gara eta han fruitu lehorrak jango ditugu.

- Zein dorre aita?

- Gero ikusiko duzu.

- Begira Uxue, hemen dago, hau da Basaluze Dorrea.

- Zer zaharra den aita! eta hutsik dago.
Zergatik dago hemen? eta zertarako egin zuten?

- Harana zaintzeko. Etsaiak bazetozen ikusteko, adibidez. Esaten dute ere bai, suak egiten zituztela. Suaren bidez Sakanako beste toki eta beste herriekin komunikatzen ziren. Orduan jende guztia erne zegoen, elkartzen, antolatzen eta arazoei aurre egiten zioten.

Uxue aho zabalik geratu zen, harrিতuta.

- Zer ongi aita, ez nekien hori. Dena dela orain etsaiak ez dira etorriko.

Xabierrek, hausnartu eta gero, zera esan zion.

- Arrazoi duzu Uxue. Orain armadak ez dira etorriko baina beste arazo batzuk etortzen zaizkigu eta lehen bezala, elkartu eta hitz egin beharko genuke.

- Zein arazo, aita?

- Lasai laztana, goazen aurrera.

Gailurra beraien aurrean zegoen eta Xabierrek Uxueri esan zion:

- Hemendik aurrera eskutik helduta elkarrekin joango gara, harriak oso arriskutsuak dira eta.

Horrela joan ziren eta azkenean, han zegoen, Altsasuko Gurutzea.

- Ze handia den aita, -esan zuen beldur piska batekin-, eta burdinezkoa da.

- Uxue, badakizu gauza bat? Urtero, lehendabiziko igandean Altsasuko mendigoizaleak eta Sakanako beste herrietatik hona etorzen dira, urte berria ospatzeko. Bazkaltzen eta xampaia edaten dute.

- Aita, eta Gurutzean dauden hizki horiek, zer dira?

- Altsasuko lantegiko izen bat da. Galdaketa zen baina itxi zuten.

- Demontre aita, lantegi batzuk itxi dituzte eta bestetan ez joateko lanera esaten dizuete.....

- Horrela da, bihotza, gauzak gaizki daude. Beno orain ogitartekoa jango dugu, ezta ?

- Aita, atzo amatxori mendira joango ginela esan nionean aurpegi goibela zeukan. Badakizu zergatik ?

- Ama ez ezik, langile guztiok ere, egoera honekin kezkatuta gaude oso. Guztiok soldata behar dugu bizitzeko eta lanik ez badago.....Duela denbora asko lantegietan sirena jotzen zuten langileak lanera joateko. Orain, berriz, milaka eta milaka, Inem bulegora joan behar dira lanaren bila.

- Eta nork dauka errua ?

- Erantzuna ez da erraza baina jakin behar duzu gurea ez dela. Langileok egunero gure lana egiten dugu baina gero ez dakigu boteretsuek, dirudunek, errentak nola erabiltzen dituzten.

- Zerbait egin dezaket, aita ?

- Ez laztana, zuk ez. Guk zerbait egin beharko genuke, elkartu eta hitz egin, baina ez da erraza. Norbera bere bidean ibiltzen da. Nola egingo dugu ?

Xabier pensakor geratzen da eta Uxuek esan jakin gabe.

- Goazen aita.

Menditik jaisten ziren bitartean isil-isilik zeuden.

Berrero dorrearen paretik pasatu ziren, Uxuek harri zaharrei begiratzen zien bitartean.

Egun hartan, bazkaldu ondoren, egunero bezala, Uxue kalera atera zen jolastera.

- Maialen, goazen kalera buelta bat ematera ?

- Ederki Xabier, Uxueren askaria hartuko dut, jolasten egondo da eta gauza guztiak ahazten zaizkio.

Iortiatik pasatu ziren baina ez zegoen han, bere adiskideak aurkitu zituzten baina Uxuez ez zekiten ezer. Kezkatuak, Zumalakarregi plazara eta beraien adiskideen etxeetara joan ziren eta inork ez zekien ezer.

Gauak gurasoak harrapatu zituen udaletxean jendearekin hitz egiten, bilaketa antolatzen.

Udaltzainek, suhiltzaileek, herriko auzokoek, jende guztiak, gau luze batean, lan asko egin zuten baina emazarik gabe. Denak etsita zeuden.

Goizaldeko seiak ziren gutxi gorabehera eta bapatean soinu zorrotz bat entzun zen.

- Menditik dator, -esaten zuen jendeak.

Irubideraino jaitsi ziren.

- Begira ezazue, Basaluze Dorretik sua ateratzen da.

Jende multzo bat atera zen korrika dorrerantz, Maialen eta Xabier haien artean.

Iritsi zirenean sua ia ia itzalita zegoen eta ondoan Uxue, piska bat burtzoratuta, beldurtuta, baina ondo.

Herrira jaitsi eta plazara abiatu ziren. Jende guztia itxoiten zegoen, zer gertatu zen jakin nahian eta pozik Uxue ikustean.

Uxue liluratuta zegoen hainbeste jende ikustean.

- Egia zen aita! Egia zen ama! Dorreak funtzionatzen du, -esaten zuen behin eta berriro oso pozik.

Xabierrek harrিতuta.....

- Baina zer esaten duzu ? ez dizut ulertzen.

- Basaluzek funtzionatzen du, Basaluzek funtzionatzen du, errepikatzen zuen. Begira aita, guztiek laneko arazo bat zeneukaten. Orain denak etorri dira plazara; elkartuta zaudete, hitz egin dezakezue eta denon artean, arazoa konponduko da. Bai aita ?

Maialen eta Xabier hunkituak zeuden.

- Bai Uxue, konponduko da, baina orain ohera joan behar duzu.

- Bai, joango naiz. Oso nekatuta nago.

Egilea: Xabier Goñi Lazkano